

## **1-BALIO PROPOSAMENA:**

Bezeroei ematen ari diegun balioa, haurren hezkuntza eta garapen pedagogikoa da, eskaintzen dizkiegun jostailuen bidez. Haurrek hezkuntza egokiagoa izateko eta haien garapenaren inguruan duten beharrei erantzuna bilatzen diegu, teknologia berriak alde batera utziz, eta naturarekin elkarrekintzan jartzea sustatuz.

Jostailu hauen materialak egurra, oihala, gatza etabar izango dira; lehen esan bezala, etxean edo kalean berta aurki ditzakegunak edota berrerabil daitezkeenak. Gainera, haurraren segurtasuna babesten duten jostailuak izango dira eta esterilizatutakoak ere.

Gainera, gure enpresako jostailuak bezeroek erostera bultzatuko duen ideia izango da ingurunea errespetatzen dutela materialek eta berezko helburua haurra izango dela, eta ez konbentzionala.

Gure lehiarako abantaila izan daiteke jostailuen beharrezko ezaugarri eta kalitate zein segurtasunaren inguruan adituak izatea eta hauek arautzen dituzten legeak ezagutzen ditugula. Gainera, haurren garapen-mailaren arabera zer behar pedagogiko dituen dakigunez, haren inguruan jardun dezakegu, pedagogo ezberdinen teoriaren oinarri hartuz; adibidez, Montessori, Pickler, Waldorf...